

Ideologia eta gatazka Montevideoko euskal etxeen eraketetan

Eneko Sanz Goikoetxea
Euskal Herriko Unibertsitatea

1911-1912an, urte baten buruan, bi euskal etxe desberdin eta kontrajarri jaio ziren Montevideon: Euskal Erria eta Centro Euskaro Español ize-nekoak. Bi elkarte hauen jaiotza gatazkatsua izan zen, elkarri salaketak egi-teagatik. Askotan esan ohi da atzean euskal abertzaletasunaren eta espaino-lismoaren arteko borroka zegoela; hala ere, baieztapen horrek ñabardunak behar ditu, euskal abertzaletasuna ez baitugu ulertu behar ideologia politiko gisa, euskal nortasun kultural komun gisa baino.

GAKO-HITZAK: Emigrazioa · Euskaldunak · Montevideo · Euskal etxeak · Ideologia · Nortasuna · Abertzaletasuna.

Between 1911 and 1912, the Basques of Montevideo created two different Basque clubs, that started from their birth fighting each other because of the ideology that lay behind each of them: a sort of Basque nacionalismo, in the case of Euskal Erria, and in opposition to it, a reaffirmation of the Spanish identity in the second one, the Centro Euskaro Español. Usually, this confrontation has been understood as a political one; nevertheless, as we will see, rather than a political Basque nationalism, the members of Euskal Erria shared a common Basque cultural identity.

KEY WORDS: Emigration · Basques · Montevideo · Basque clubs · Ideology · Identity · Nationalism.

Jasotze-data: 2009-04-15. *Onartze-data:* 2009-04-22.

1. Sarrera¹

1.1. Euskal immigrazioa Uruguain

1825. urtean Uruguai bere independentzia lortu zuen, nahiko berandu Hego Amerikako beste herrialdeekin konparatuz gero. Uruguairen independentzia Argentina eta Brasilen arteko gerratea konpontzeko bilatutako soluzioa izan zen (Uruguai leku estrategikoa baitzen). Irtenbide gisa hauxe erabaki zuten; lurralde hura ez zela ez Brasilentzat ezta Argentinarentzat ere geldituko; horren ordez, independentzia ematea erabaki zuten. Ez dugu ahaztu behar Uruguai hogei urte iraun zuen independentzia-gerra batean sarturik ibili zela. Horrek lurraldea txikituta eta birrinduta utzi zuen, bere baitan ehun mila biztanle soilik zituelarik. Uruguai lurralde-nazio hutsa zen independentzia lortu zuenean.

Horrela, Uruguai independentzia lortutakoan, arazo argi batekin aurkitu zen: lurra bai, baina biztanlerik ez. Ondorioz, oso goizetik immigrazioaren bultzada estatu-politika bihurtu zen (Coolighan eta Arteaga, 1992). Immigrazioa ahalbidetzeko, 1834ko abuztuan gobernuak zenbait ministeriok erraztasunak eta dirulaguntza zabalak ematea erabaki zuten, Europatik etorkinen arreta lortu ahal izateko. Dei horri oso erantzun indartsua eman zioten hasiera batean Euskal Herri kontinentalean² eta geroago Euskal Herri penintsularrean bizi ziren nekazariak eta abeltzainak ere.

Baina honek Uruguai emigrazio-beharra soilik azaltzen digu, eta, ondorioz, galdera hau egin beharko genuke: zerk eragin zuen hainbeste euskal herritarrek beren lurraldea utzi behar edo nahi izatea? Euskal Herri penintsularrean izandako aldaketa ekonomiko eta politikoen ondorio izugarriak izan zituzten euskal gizarte tradizionalen. Besteak beste, migrazio-korronte ezberdinen sorrera ekarri zuen XIX. mendean zehar. Oinordeko bakarraren sistema, lur komunalen desagertzea, gerra karlistak, foruen indargabetzea edo zerbitzu militarren derrigortzea izan ziren, besteak beste, beren lurra utzi eta beste leku batzuetara joatearen arrazoi nagusiak.

Faktore hauek guztiak kontuan harturik, ez gaitu harritu behar hainbeste euskal herritar lur horietara joan izanak. Uruguai etorkin-korronte asko izan zituen. 1830etik aurrera, bertako populazioaren hazkuntzan garapena ematen hasi zen, 1852. urtean bertako populazioa bikoiztea lortu baitzuten, 58.000 izatetik (1830. urtean) 132.000 izatera iritsi baitziren (ez dugu ahaztu behar, 1839-1851 urteen artean Gerra Handia izenaz ezagutzen dena gertatu zela lurralde horietan). Hiru olatu nagusi ezberdindu behar ditugu:

1. Artikulu hau, "Euskal Herria Mugaz Gaindi" nazioarteko mintegian aurkeztu zen, 2004ko maiatzaren 6-7an. Mintegi hau Euskal Herriko Unibertsitateak emaniko *Imagen e imágenes de la emigración vasca a América: identidad e imaginario colectivo (1835-2002)* ikerketa-proiektuaren barnean kokatzen da (1/UPV 00156.130-H-15310/2003).

2. Euskal Herriaz hitz egiten dudanean, zazpi lurralde historikoen ari naiz: Araba, Behe Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoa. Euskal Herri kontinentala Iparraldeko hirurak izango dira eta penintsularra Hegoaldeko laurak.

1. 1831-1835 urteen artekoa.
2. 1851-1875 urteen arteko olatua, zeinetan immigranteen kantitatea aurrekoa baino handiagoa izan zen.
3. 1879-1900 urteen artekoa.

Testuinguru honetan, euskal herritarrek zeresan handia izan zuten, artilearen iraultzaren bultzatzaileetarikoa izan baitziren. Horrek Uruguairi oso kalitate oneko produktua esportatu ahal izatea ekarri zion. Baina euskal herritarrak ez ziren landa munduan soilik gelditu, baizik eta hirigune urbanizatu edo metropolietan ere presentzia handia izan zuten. Lanbide-aniztasun honek erakusten digu erraztasun handia izan zutela mota ezberdinetako lanetan ibiltzeko, horrek abantailak eman zizkielarik. Beraiek ez ziren lehenengoak ezta bakarrak izan, baina bai ugarienak (Luzuriaga eta Alvarez, 2001; Mörner, 1996; Azcona, 1992; Irigoyen, 1999; Arin, 2000; Irigoyen, 2003b). Adibide gisa, 1830-1840 urte-bitartean *tasajoaren*³ industrian sartzea lortu zuten zero gero, hurrengo hamarkadatik aurrera, iraultza ekoizlean zeresan handia izan zuten (Luzuriaga eta Alvarez, 2001). 1830. urtetik aurrera, euskaldunen bigarren belaunaldiak⁴ izen ona eta diru asko egitea lortu zuten. Adibide gisa, Juan Idiarte Borda Uruguairiko presidente konstituzionala har dezakegu (euskaldunen ondorengoa baitzen). Beraz, lehenengo euskaldunek egindako lanak maila eroso batean bizi ahal izateko balio izan die.

Horrek, ondorio zuzen bat dakar, alegia, oso goiz hasi zirela bertara joandako euskaldunak beraientzako aisialdi-tokiak eratzen, euskaldun batzuekin egoteko. Gehienbat tabernak, pilotalekuak eta antzekoak eraikitzeari ekin zioten beren nahia aurrera eraman ahal izateko.

Baina Euskal Herritik joandako jendearen artean bereizketa oso bortitza gertatu zen eta, adibiderik argiena Uruguairiko Gerra Handian dugu. 1839. eta 1851. urteen artean egondako Gerra Handia edo Troia Berriko gerran gertatutakoa (Irigoyen, 2001) besterik ez genuke ikusi beharko: bertan, zehatz-mehatz esan dezakegunez, Iparraldeko euskaldunak eta Hegoaldeko euskaldunak elkarren kontra borrokan ibili ziren (gerra horren alde bietan euskal tropak banatuta egon ziren: Iparraldekoak hiriburuaren defentsan ibili ziren eta Hegoaldekoak, berriz, hura erasotzen) (Irigoyen, 2003b).

Hala ere, desadostasun hori ez zen betiko izan eta denboraren eraginez euskal herritarrek berriro batzeari ekin zioten. Horren arrazoiak kulturalak (hizkuntza-ohiturak, etab.) eta erlijiosoak izango lirake (guztiak kristau katolikoak baitziren). Horrekin lotuta, betarramistek Montevideon sortutako eliza izan zen gune garrantzitsua, euskaldunen eliza bezala ezagutzen zena alegia (bertan euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez ematen baitzituzten elizkizunak) (Rodríguez, 1991). Beraz, hura ere euskaldunen bilgune garrantzitsua izan zela azpimarratu beharra daukagu, batez ere Euskal Herriari buruz zuten ideia-ondorioz. Euskaldunek beren

3. Haragia garbitzea, lehortzea; gatz eta errautsaren bidez egindako lanari deitzen zaio. Haragi hori normalki ez zen bertan kontsumitzeko prestatzen, baizik eta kanpoan saltzeko, eta beronen bidez kanpoko kapital asko lortu zuten.

4. Bigarren belaunaldiak: bertara joandako euskaldunen ondorengoak izanik, nahiz eta beraiek Uruguaitarrak izan, euskal kulturaren hezitako pertsonak izango dira.

betiko ohiturekin jarraitzea erabaki zuten; pilota-partidak antolatu, tabernan ibili eta igandetan beren elizkizunetara joaten ziren.

XIX. mendeko euskal etxeak: euskaldunen lehen erakundeak

Aurrean aurkitutako errealtatearen ondorioz, batasun kultural hori instituzionalizatza jo zuten euskaldunek; horrekin batera bertan sortuko zen identitate berri horri bultzada emateko tresna bezala erabili ahal izateko. Hala ere, batasunerako joera hau ez zen berehala nagusitu; izan ere, Uruguain eraturako lehenengo euskal etxea, 1876. urtean hain zuzen ere, *Laurak Bat* izenarekin ezagutzen duguna izan zen (Jose de Umaran bizkaitarra lehendakari hautatu zutelarik), zeina Euskal Herri penintsularreko biztanleek soilik eratu baitzuten (Luzuriaga eta Alvarez, 2001; Irigoyen, 1999; Arin, 2000; Irigoyen, 2003b. Alvarez, 1996).

Euskal etxe horretan jarritako estatutuen artean, argi ikus dezakegu zein izan ziren erakunde haren jaiotzeko arrazoiak eta nori zuzenduta egon zen: Hego Euskal Herritik etorritako biztanleriari laguntza ematea, Uruguai edozein tokitan bizilekua eskainiz, eta horretarako Uruguai osoan ordezkari izan nahi zuten; Euskal Herrira itzuli nahi zutenei, beren nahia bete zezaten dirua ematea. Bazkideak zuzendaritza-batzordeak onartu behar zituen (nahitatez Hego Euskal Herrikoak izan behar zuten).

1884.eko abenduaren 27an erakundearen estatutua aldatzea erabaki zuten (lehenago, 1882an alegia, *La Caja Vasco Navarra* sortu zuten, Iparraldekoek bertan parte hartuz), horrela, bertako errealtatearekin bat egiteko asmoz; 1876an ezarritako izena aldatzea erabaki zuten: *Laurak Bat* izatetik, *Euskaldun Guztiak Bat* izatera pasa zen, Euskal Herri osoan (Iparraldekoak zein Hegoaldekoak) immigranteei laguntza emateko asmoarekin (baita haien seme-alabei ere).

Euskal etxe berriak inbertsio handi bat egitea erabakita, lur batzuk erosi eta bertan aisialdi-guneak eraiki zituzten. Euskal etxeak *Campo Euskaron* egindako inbertsioak kolapso ekonomikoa sorrarazi zuen eta, ondorioz, 1898ko uztailaren 31n kiebra jo zuten. Uruguai lehen euskal etxearen amaiera izan zen.

1896. urtean Montevideon, Hego Euskal Herriko giza talde batek batzea erabaki zuen. Zeintzuek *Laurak Bat* Centro Navarro sortu zuten⁵:

Nueva Sociedad Vascongada- Hace pocos días se reunió en Montevideo un numeroso grupo de Vasco-navarros con el objeto de cambiar ideas sobre la conveniencia de fundar un centro social de que carecía la colectividad euskara de la capital uruguaya. [...] Sabemos que entre los vasco-navarros fundadores de esta nueva sociedad, reyna el mayor entusiasmo por difundir el espíritu euskaro y buscar la unión de los Laurak-batenses [...]

Nahiz eta krisi ekonomikoaren ondorioz azkar desagertu beharrean aurkitu, hala eta guztiz, haren biziraupen laburrean aldizkari bat ateratzea lortu zuten⁶. Bi saiakera hauen ondoren, Uruguai euskal etxerik gabe gelditu zen, beraz, hurrengo

5. "Notas locales: Nueva Sociedad bascongada", *La Baskonia*, III. urtea, **84**, 145 [1896ko urtarrilaren 30a].

6. "Notas locales: 'Laurak bat de Montevideo'", *La Baskonia*, III. urtea, **110**, 351 [1896ko uztailaren 20a].

mendeko lehen hamarkada arte itxaron beharrea aurkituko gara euskal herritarrek beste erakunde bat sortu arte.

2. 1911-12: Bi euskal etxeren sorrera

2.1. Centro Euskaroren sorrera

XIX. mendean desagertutako euskal etxearekin euskal kolektibitatearen euskaltzaletasuna desagertuko zela uste dute orok. Baina egun batean Uruguaira Euskal Herritik joandako gazte talde batek euskaldunentzat bilgune bat Montevideon egiteko ametsa izan zuen. Handik denbora gutxira beraien ametsa egia bihurtzea lortu zuten, aurreko mendean beste euskaldunek egindako bidea aprobeztatuz. Euskal etxe honen sorreran parte hartu zuten gehienak Nafarroako lurralde historikotik joandakoak izan ziren.

Azkenik 1911ko ekainaren 29an Centro Euskarok sortu eta beren estatutuak argitara eman zituzten. Bertatik atera daitezkeen ideia nagusiak hauek izango lirateke:

- Euskal etxe hau Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako lau probintzia anaietatik etorritako jendearentzako bilgune eta aisialdi-lekua izateko jaio da; *ideologia politikoa edo erlijiosoa kontuan hartu gabe*.
- Euskal argitalpenak bultzatzeko lehiaketak gauzatzea (kultura bultzatuko dute).
- Bazkideek beren zuzendaria hautatzeko eskubidea izango dute, baina guztiak Hego Euskal Herrikoak izan behar dira.

Hasiera batean harrera ona egin zioten, horregatik honela azaldu zuen Juan de Egiak, *La Baskoniako* kazetariak, Montevideon zeraman denbora laburrean ikusitakoa. Besteak beste euskaldunen artean aurkitu zuen batasunik eza azpimarratu zuen, nahiz eta hori aldatzen hasi, baita Euskarok euskal etxearen sorreraren biltzarrean entzundakoa ere:

Existe hoy en Montevideo un gran contingente de baskos jóvenes, que convencidos del viejo axioma, «la unión constituye la fuerza» han decidido agruparse bajo el nombre de «Centro Euskarok» con fines tan nobles como es en primer termino la protección y ayuda mutua y tan estimables y dignos de apoyos como los de rendir ferviente culto a usos y costumbres euskaros⁷.

1911ko abenduaren 17an lehenengo bilkura egin zuten *Sociedad Italo Uruguayaren* lokaletan. Bertan, lehenengo desadostasuna azaldu zen, alegia, Iparraldekoak kanpoan uztea erabakitzean azaldu zena. Gatazka hau argi islatzen digu *La Baskonian*⁸ agertutako artikuluko honek:

La Sociedad Euskara-Hasta la hora escribir esta correspondencia no se ha arribado aun á una solución definitiva en lo que se refiere a la constitución del Centro Euskarok. El criterio entre los baskos esta a este respecto un tanto dividido. Por

7. "Viajes de la Baskonia en Montevideo", *La Baskonia*, XIX. urtea, 658, 157 [1912ko urtarrilaren 10a].

8. "Notas locales: 'La Sociedad Euskara'", *La Baskonia*, XIX. urtea, 659, 177 [1912ko urtarrilaren 20a].

ejemplo, un buen número de nabarros opina que los baskos franceses deben ser excluidos del centro, y que este debe tener un carácter sportivo únicamente. En cambio, los baskos del resto de las provincias, en su inmensa mayoría, opinan que el Centro Euskaro debe conglomerar a todos los baskos de las siete provincias, sin excepción alguna, opinión que comparten también algunos nabarros. Para estos últimos, el centro Euskaro debe de tener fines más amplios, es decir los del sport y los del apoyo mutuo.

Desde luego, este criterio tiene fundamentos más sólidos, por cuanto busca la unión de todos los baskos sin excepción ya que todos descendemos de un mismo origen y tenemos, con pequeñas variaciones localistas, las mismas costumbres, las mismas ideas y los mismos anhelos. Los nabarros que se muestran tan exclusivistas no lo entienden así y vemos difícil un acercamiento de posiciones. Por su parte, el resto de los baskos se deciden a mantener su opinión aun a truke de cualquier disgregación.

Nosotros creemos que el centro Euskaro debe reunir en su seno á todos los baskos que quieran formar parte de el, porque así la fuerza del centro será mayor y más beneficiosa su acción. De todos modos, estaremos a la expectativa

Horrek ondorio zuzenak izan zituen, besteak beste, Iparraldeko denek eta Hegoaldeko batzuek euskal etxe hori uztea, baita berauek nahi zuten euskal batasuna ezerezean gelditzea. Beraz, esan dezakegu euskaldunen arteko liskarrak ez direla gaurko gauza soilik, baizik eta historian zehar errepikatzen joan dena. Orduko liskarraren ondorioz, euskal etxearen estatutuak birmoldatu zituzten (besteak beste, hauek dira gatatzkarekin ondorio zuzena izan zutenak):

- Bazkide aktiboek Hego Euskal Herrikoak edo bertokoen semeak soilik izan behar dutela.
- Zuzendaritza-batzordea euskal bazkide edo hauen semeez osatua egon behar dela. Lehendakaria Hegoaldeko euskal herritarra soilik izan zitekeela.

Bi hauekin batera beste eraldaketa bat egitea erabaki zuten, zein, nire iritziz, Euskarokoen jarrera ikusita nahiko deigarria baita. Sartutako berrikuntza euskaldunen ondorengoak ziren uruguaitarrekin zegoen erlazionatuta, nahiz eta beraien gurasoak Euskaroko bazkide ez izan, bertan parte hartzeko aukera eman baitzieten. Azkenik, birmoldaketa honek beste eraldaketa bat ekarri zuen: izen-aldaketa. Euskal etxe honetan jarri zuten izena ez da munduko beste leku batean ere azalduko, alegia Centro Euskaro izatetik Centro Eúskaro Español izatera pasatu baitzen: «El Centro Euskaro en asamblea celebrada Hace días, resolvió cambiar de nombre, en esta forma: Centro Eúskaro-Español⁹»:

Artículo 1º esta sociedad fundada el 29 de junio de 1911 se denomina «EL CENTRO EUSKARO ESPAÑOL» y tiene su asiento o domicilio en la capital de la Republica Oriental del Uruguay.

Artículo 2º el objeto de ella es:

9. Honen aipamen bat aurki dezakegu hemen: "Los Baskos en Montevideo; 'centro Euskaro Español'", *La Baskonia*, XIX. urtea, **688**, 321 [1912ko apirilaren 20a].

- 1º fomentar y estrechar, mediante agradable y conveniente comunicación y tratos continuos, los fraternales vínculos que deben unir a todos los naturales de Álava, Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra, y para los hijos de los nativos de dichos pueblos nacidos fuera de ellos.
- 2º difundir, valiéndose de los medios que considere mas eficaces, el conocimiento de las provincias anteriormente nombradas y de todo lo que las enaltezcan, honrando a los vascos que, en la región o fuera de ella, se hayan distinguido y se distingan por sus talentos o virtudes; así como ensalzar el nombre de España, rindiendo el honor debido a sus glorias e hijos más preclaros.
- 3º fomentar y difundir las tradiciones vascas.
- 4º proporcionar a los asociados todo género de distracciones y esparcimientos, y fomentar la instrucción musical, literaria y artística, que permita organizar funciones teatrales, certámenes, conciertos y otras manifestaciones de cultura social que recreen e instruyan.
- 5º crear y fomentar una biblioteca compuesta con preferencias, de obras de autores vascos.
- 6º publicar, siempre que sea posible, una revista con el titulo «EUSKARO ESPAÑOL», consagrada exclusivamente a los intereses morales y materiales del centro¹⁰

2.2. Euskal Erriaren sorrera

Euskarotik ateratako jendeak beste euskal etxe bat osatzearen beharra ikusi zuen, zeinetan Euskal Herriko zazpi lurralde historikoetako jendearen batasuna lortu nahi izan zuten. Egitasmoa aurrera eraman ahal izateko, Euskal Herriko jendeari eskutitzak bidaltzea erabaki zuten¹¹.

Estimado señor:

En un grupo de buenos vascos se ha promovido la idea de fundar en este país una asociación sólida y benéfica que haga honor a la raza Eúscara, agrupando en ella á todos los vascongados y descendientes de los mismos, sin más distintivo que el deseo de hacer bien.

Al objeto y deseando conocer previamente las impresiones de los mas caracterizados hijos del querido suelo Eúscaro, radicados en esta Republica, nos tomamos la libertad de dirigirnos á Vd. pidiéndole quiera ilustrarnos por intermedio del adjunto memorandum, con sus autorizadas opiniones.

Si la idea encuentra una acogida favorable, trataremos el asunto de una reunión de la cual (una ves aunadas estas opiniones) podrá salir la Comisión que dirija los trabajos respectivos para conseguir el fin anhelado. En consecuencia, con el propósito de dar mayor amplitud y eficacia ala convocatoria á que hacemos mención.

10. 1924. urteko apirilean *Centro Eúskaro Español*eko kideek beren aldizkaria ateratzea erabaki zuten. Lehenengo zenbakian, euskal etxearen estatutuak azaltzen dira. Cfr. *Revista mensual Euskaro Español*, Montevideo, 1924ko apirila, 3. or.

11. Euskal Erriako dokumentazioaren artean aurkitutako eskutitza da. Montevideon, 1912ko martxoaren 18an idatzitakoa.

En la seguridad de que su amor al solar Eúscaro y sus buenos hijos, hará que reciba con entusiasmo nuestro pedido y por lo tanto nos favorecerá con su más franca é inmediata contestación, saludan a Vd. Con la consideración más distinguida, ofreciéndose sus mas atentos servidores.

ANGEL MAGIRENA, FERMIN HERNANDORENA, HERMENEGILDO ARAMENDI, EVARISTO B. URRUTIA, LORENZO ZABALETA, BAUTISTA GARAÑO.

Montevideo, Marzo 18 de 1912

Bultzatu nahi zituzten ideien artean honako hauek aurkituko ditugu (Arin, 2000). Hasteko, euskaldun guztiak eta beren ondorengoak bateratu nahi, horrela, Euskarotik ahalik eta bazkide gehien erakartzen saiatu ziren. Bigarrenez, ados izanez gero, deialdiaren oinean azaltzea, horrela sorkuntzarako batzordera ahalik eta jende gehien agertuko zelako ideiarekin.

Arnaldo Parraberek zuzentzen zuen *Euskal Erria* aldizkarian, euskal etxearen fundazio-akta aurkituko dugu, non gauza deigarriak ikus ditzakegun¹²:

Podemos afirmar que los iniciadores de la fundación de «Euskal Erria» trabajaron en una forma altamente plausible, después de una activa propaganda, y de recibir numerosas adhesiones en contestación a la circular transcripta se realizo la asamblea de fundación jornada memorable que revelo el patriotismo de nuestra colonia tan querida y respetada en esta tierra hospitalaria. Damos aquí la reseña de ese acto realizada el 30 de marzo de 1912, en los salones del Club Español:

Acta de fundación (*Es Copia Fiel*):

El día 30 de Marzo de 1912 (mil novecientos doce) siendo las nueve pm. y previa invitación echa por circulares expresamente para este acto, se reunieron en el salón de actos públicos del Club español, galante cedido por la junta Directiva de este centro, los señores Lorenzo Zabaleta, Deogracias Latorre, Jose Maria Lizarraga, Hermenegildo Aramendi [...]

Gero, fundazio-aktari 150 pertsonen izenez osatutako zerrenda batek jarraitzen dio, entzule joandakoen izenak. Beraien artean bi izen aipatuko nituzke: Pedro Parrabère eta Enrique de Bilbao, honen inguruan sortu zen gatazkan ahotsik garrantzitsuenak izan baitziren.

El señor Evaristo B. Urrutia abre la sesión declarando que habiendo sido designado para ese acto por la comisión organizadora de la asamblea cumple con tan grato deber con el ánimo y el espíritu satisfecho ante el excelente resultado obtenido por la convocatoria. Explica en breve exordio las causas originarias y los fundamentos que motivan e informaban la asamblea, que eran los de formar en Montevideo una sociedad de Baskos de ambos lados de los pirineos y sus descendientes para que, unidos a un calor de un profundo sentimiento euskaro, trabajasen todo lo posible por la prosperidad y unión de todos los sentimientos baskongados residentes en esta capital y en el interior del país, velando siempre por el buen nombre de euskaria. [...]

[...] puesta a consideración de la asamblea tanto la formula i el orden del día de la referencia, pide la palabra el señor Hermenegildo Aramendi, quien, aceptando el criterio de la comisión organizadora propone la lista siguiente para formar la mesa provisora:

12. "Dokumentos sobre la fundación de nuestra institución 'Euskal Erria'", *Euskal Erria*, VI. urtea, 228, 272 [1917ko abuztuaren 4a].

Presidente: Don Francisco Goñi.

Secretarios: Don Manuel Cendoya y Don Evaristo Bozas Urrutia

El señor Enrique de Bilbao pide a su vez la palabra para manifestar que en Baskonia se tiene la costumbre de designar para esos puestos a hombres de edad madura y no a jóvenes, por que estos carecen de la experiencia de aquellos. Propone, en consecuencia que sean hombres de edad madura quienes compongan la mesa.

Pide a continuación la palabra el señor Pedro de Parrabére enunciando la opinión de que también los jóvenes deben participar de tales cargos porque, si bien carecen de la experiencia de los viejos, tiene, en cambio, ímpetu para la lucha.

Vuelven a Hablar alternativamente, los señores Bilbao y Parrabére, confirmando en sus respectivas manifestaciones. El señor Deogracias Latorre pide que se pongan a votación las proposiciones de los señores Aramendi y Bilbao, y como fuese esa petición apoyada por otros señores, el presidente obra en consecuencia. Pidiéndolas por orden a la resolución de la asamblea. La proposición del señor Aramendi obtiene casi la unanimidad de votos, por lo cual la asamblea entiende que no hay lugar de votar la proposición del señor Bilbao.

Aramendik egin zuen proposamena indartuta atera zen, beraz, esan dezakegu ez zela modu onean gelditu Bilbao jauna, bere proposamena (adin eta esperienziako jendea jartzea euskal etxearen buru) ez baitzuten bozkatu. Batzarrak beste puntu batzuk jorratu zituen, egun hartan mahiak aipatu beharreko gauzeekin bukatu arte. Orduan, batzarrari hitz egiteko unea utzi zitzaion Bilbao jaunari berriro beste proposamen batzuk egiteko eta denak aurrera atera eta gero, gaueko 22:30ean Euskal Erria euskal etxearen lehenengo batzarra amaitutzat eman zuten.

Sortzaileen artean *Hermenegildo Aramendi* (Irigoyen, 2003a) agertuko zaigu. Baina dena ez zen hasiera batean izan dirudien bezain polita; Iparraldekoek uste baitzuten Hegoaldekoek ez zituztela anaiatzat hartzen. Ondorioz, euskal etxera sartzeko beren mesfidantza azaleratu zuten berau sortu bezain laster. Baina Iparraldeko euskaldunak bertaratzeko izugarritzko lana egin zuen Juan Mendibehe-
renek. Horrek erabaki zuen sortu berri zen euskal etxeari bere atxikimendua eskaini eta zenbait arlotan lan egitea.

1912ko martxoaren 30ean euskal etxea sortzearen ametsa aurrera ateratzea lortu zuten¹³, horretarako lehenengo batzarra *Club Español*ean eginez. Bilkura horretan, beste gauzen artean, euskal etxearen izena erabaki beharrean aurkitu ziren: Euskal Erria edo Zazpiak Bat, lehenengo izena hautatu zutelarik (Hermenegildo Aramendi izan zen hautatutako izena proposatu eta defendatu zuena). Ekainaren 1ean lehenengo estatutua egin eta Nikolas Inciarte (gipuzkoarra) lehen-dakari hautatzea erabaki zuten. Lehenengo estatutu horretan aurkituko ditugun ideia garrantzitsuenak hauek izango lirake:

- Euskal familiaren arteko batasuna lortu nahi da beraien tradizioak gordez.
- Euskara-eskolak eman eta hizkuntza honi izen ona ematen saiatuko dira.
- Uruguaira iritsitako euskaldunei, lanpostuak eta beharrezkoa duten laguntza ematen saiatuko dira.

13. "Los Baskos en Montevideo; 'Constitución de la sociedad'", *La Baskonia*, XIX. urtea, 667, 298 [1912ko apirilaren 10a].

- Bazkide aktiboak euskal herritarrek eta hauen semeak bai aitaren aldekoak bai amaren aldekoak izango dira.
- 1914ko ekainaren 29a baino beranduago sartutako euskaldunen ondorengoak harpidedunak soilik izan daitezke.
- Emakumeek kooperatzaileak izateko eskubidea izango dute.
- Euskal Erriko zuzendaritza-batzordea 12 pertsonen osatuko dute: 4 Hegoaldean jaiotakoak izango dira, beste 4 Iparraldean jaiotakoak, eta azkeneko laurek aurrekoen ondorengoak izan behar dute.
- Euskal Erriko lehendakaria txandakatzen joango da, urte batean Iparraldekoa baldin bada, hurrengoan Hegoaldekoa.

Berriro ere bertan zer gertatu zen jakin ahal izateko iturrietako bat *La Baskonia* aldizkaria izango dugu. Honela azalduko digu Argentinako aldizkari abertzale honek euskal etxe horren sorrera¹⁴:

Si para evidenciar la importancia de la obra que en Montevideo se acaba de coronar, fuera preciso, absolutamente necesario, hacer una exposición de hechos pasados, gustosos accederíamos á tal exigencia, ya que la justicia demanda no escatimar placemes [Sic] ni lisonjas á esos euskaldunas ejemplares. Pero, como al estudiar hechos pasados tendríamos necesariamente que detenernos a condenar pequeñeces y miserias de algunos espíritus venales interesados al parecer en hacer fracasar la obra que hoy admiramos todos, más oportuno creemos pasar por alto tales incidencias y dedicar al presente y al futuro la atención que en realidad merece.

Los baskos de Montevideo, al salir del ostracismo á que voluntariamente se habían condenado, han sabido darnos un singular ejemplo, no ya de entusiasmo por la patria, que eso es patrimonio de todos los euskaros, sino un ejemplo de hermosa fraternidad que es algo muy interesante en estos tiempos que parecía más inminente la ruptura.

Baskos de un lado y otro del Bidasoa se han agrupado en Montevideo bajo el mismo glorioso nombre y al hallarse frente á frente después de tan largo alejamiento, el abrazo ha sido tan entrañable que la fusión quedó hecha para nunca jamás romperse.

Azkenik abuztuaren 4an Euskal Erriak bere egunkaria ateratzea erabaki zuen, zeinetan Arnaldo Pedro Parrabere jarriko zuten buru.

Une hartan, Montevideon euskal etxerik ez izatetik bi euskal etxe izatera pasatu ziren.

3. Euskaroren eta Euskal Erriaren arteko gatazkaren arrazoia

3.1. Historiografiak izandako ikuspegia

Ikusi dugunez, beraz, oso denbora gutxiren buruan, Uruguain euskal etxerik ez egotetik, bi euskal etxe agertzerara pasatu zen. Eta ez, hau ez zuten nolana hiko bidean egin, bi euskal etxe hauen sorreran elkarren kontrako gatazka ideologiko batek eragin baitzuen. Honetan erabilitako bibliografia guztia ados dago; baina adostasun honek ez du argitu zertan ziren bi kontrako ideologia haien edukiak.

14. "Los Baskos en Montevideo", *La Baskonia*, XIX. urtea, 667, 298 [1912ko apirilaren 10a].

Askotan, gatazka ideologiko hau, «abertzale» eta espainolisten arteko liskar gisa ulertu da —«abertzale» hitza, EAJ edo aranismoaren ildotik ulertuta—. Baina, horrela izan al zen benetan? Hain zen handia eta zabala abertzaletasun aranistaren presentzia Uruguaiako euskal koloniaren baitan, holako gatazka batean parte hartzeko? Hau guztia argitu nahian, euskal etxe haietako bakoitzaren atzean zeuden talde eragileen ideologiara hurbiltzen saiatuko gara

Baina lehenik eta behin, aztertu beharko genuke zer-nolako iritzia izan duen orain arte historiografiak honen guztiaren inguruan. Hasteko, azpimarratu beharra dago ez dela oso aztertua izan historiografiaren aldetik, adibide gisa esan beharko genuke *El Péndulo patriótico* liburuan, esaterako, ez dugula honi buruzko aipamenik aurkituko; egia da Buenos Aireseko euskal etxean gertatutakoari buruz aipamen txiki bat egiten dutela, baina Uruguaiako euskal etxeetan gertatutakoari buruz ez dugu ezer aurkituko (De Pablo, Mees eta Rodriguez, 2001: 179), beraz, arlo honetan hutsune handia dagoela esan dezakegu.

Hala ere, ezin dezakegu esan ez duela inork idatzi gai honi buruz, egia ezkutatzen ibiliko nintzatekeelako. Gutxi idatzi da, baina zerbait idatzi dutenen artean, bi korronte ageri dira:

Alde batetik, Euskal Erria euskal etxean EAJren luzapen ideologikoa ikusten dute, beraz, defendatu egiten dute Euskal Erria alderdi horren eremuan zegoen jendeak sortu zuela; Jose Manuel Azcona Pastor har dezakegu ikuspegi honen irudi gisa¹⁵.

Beste alde batetik, Alberto M. Irigoyenek idatzitako *Centro Euskaro de Montevideo o la dialectica del ser* eta E. Jorge Arin Aypharssorhok plazaratutako *El legado de los inmigrantes, vida institucional de los centros Vascos del Uruguay 1876-1998*. Bi idazle horiek, ordea, ez dira historialari profesionalak, berez ez baitituzte behar diren metodologiak aplikatzen. Arin adibidez, oso ona eta zuhurra da behar duen informazioa lortzeko orduan, gainera fidagarria dela esan beharra dago. Bere alde txarra da, kronista hutsa dela, ez duela inolako kritikarik egiten, beraz, ez du inolako posizioirik ematen mahi gainean jartzen digun informazioari buruz. Irigoyen zerbait hobea dela esan dezakegu, bere lanetan interpretazioa egiten saiatzen baita. Azconak defendatzen duenaren aurka azalduko da, bere ustetan Euskal Erriaren sorreran gertatzen dena, bertan sortutako abertzaletasun

15. Azcona, 1992; Azcona, Muru eta García-Albi, 1994; Azcona, Cagio eta Giró, 1992. Azkeneko liburu horretan, honako harribitxi hau aurki dezakegu: «Después decaerán momentáneamente, para crecer de 1900 a 1914. Luego, un nuevo reflujo migratorio, en pequeña proporción, hasta la llegada de la guerra civil. La contienda dividió a la comunidad vascouruguaya que tenía una larga y acentuada tradición carlista. Así, los más conservadores y católicos de pro optaron por el apoyo a la causa franquista, mientras que los sectores más a la izquierda, y siguiendo la consigna del País Vasco, ayudaron a la Republica española. En el centro vasco Laurak Bat, fundado en Montevideo el 25 de diciembre de 1876 por dos docenas de amigos y que ostenta el orgullo de ser el primero que se edificó en América, la polémica llegaría en ocasiones a tintes dramáticos. Lo mismo sucedería en 1911 en el llamado Centro Euskaro-español, de predominio navarro, y que mayoritariamente secundaria a Franco. Donde apenas se noto la polémica fue en el centro Euskal Erria de mayoría Vasco-francesa». Ezin da akats gehiago jarri hain lerrokada laburrean.

endogeno edo euskaltasun kultural baten ondorioa baita. Haren lanean gabezia aurki dezakegu; izan ere, ez du behar adina sakontzen arrazoi nagusi baten bila, batez ere, konparatzeko posibilitate eskasen ondorioz.

Lehenago azaldu bezala, 1911ko ekainaren 29an Centro Euskaro jaio zen, baina bere sortzaileen artean bi ikuspegi izan ziren. Lehenik eta behin, bertan zeintzuk izan zitezkeen bazkide erabaki behar zuten; batzuen ustetan, Hegoaldeko euskal herritarrek soilik izan zitezkeen (hau, batez ere, nafarrek bultzatu zuten). Beste batzuek, aldiz, Euskal Herri osoko biztanleak batu behar zituen euskal etxea sorrarazi nahi zuten, non kulturaz gozatu eta zabaldu ahal izango zuten. Mugimendu hau gurtia honela azalduko da *La Baskonia*ko zenbaki honetan¹⁶:

A propósito de la asamblea del Centro Euskaro-en el orden del día la asamblea verificada por el centro Euskaro el día 20 del corriente figuraba un punto referente a la reforma de los estatutos. Se trataba de ampliar los fundamentos del mismo, acogiendo en el seno de la sociedad á los baskos franceses, pues en lo estatutos establecen únicamente a los hijos de las provincias basko-españolas.

Ya hemos hablado de la resistencia que a propósito tan noble oponen numerosos nabarros, resistencia que triunfo en la asamblea del 20, porque el estatuto del Centro Euskaro tiene un artículo según el cual no se puede reformarlo, sino con la presencia de la mitad mas uno de los socios en la asamblea. En la del 20 apenas hubo sesenta asambleísta, quedando por lo tanto anulado el punto concerniente á la reforma. Puede internarse una nueva asamblea, pero á ella no concurrían más que los que vienen acudiendo á las que se han celebrado hasta la fecha.

Por otra parte, como lo hacíamos notar en el número anterior, el ideal de la mayoría de los nabarros es dar al Centro Euskaro un carácter eminentemente sportivo; ideal que contrasta con el del voto de los baskos a la unión baska amplios horizontes de apoyo, de la sólida fraternidad y de resurrección de las costumbres euskaras. Y esa disparidad de opiniones no puede fusionarse, porque cada grupo se aferra con terquedad euskalduna á su propio ideal.

[...] La solución del conflicto, según el criterio de esas personalidades sería esta: Que el Centro Euskaro se convirtiera en un centro puramente recreativo, ya que tal es ideal de los que hasta ahora dirigen sus destinos: y que se constituya una identidad una nueva entidad que conglomerase los baskos de las siete provincias y los hijos de los baskos, entidad que podría denominarse «Zazpiyak-bat».

Hauxe izango da *La Baskonia* aldizkari argentinarraren iritzia: euskaldunek alde batera utzi behar dituztela beraien ezberdintasunak eta, batuta, euskal familia goratu behar dutela, alegia. Baina ez da artikulu horrekin bultzatu nahi duten ideia bakarra. Sortu beharreko beste euskal etxe horren barruan Ipar eta Hego Euskal Herriko euskaldunak batu behar dituen etxea lortzea, alegia¹⁷:

16. "Los Baskos en el Uruguay; 'A proposito de la asamblea del Centro Euskaro'", *La Baskonia*, XIX. urtea, 660, 193 [1912ko urtarrilaren 30a].

17. "Los Baskos en el Uruguay; 'A proposito de la asamblea del Centro Euskaro'", *La Baskonia*, XIX. urtea, 660, 193 [1912ko urtarrilaren 30a].

Acarician esta identidad no solo los baskos españoles, sino también los de allende el Pirineo y algunos nabarros, porque tienen la seguridad de que si se lleva a cabo su fusión la familia baska ofrecería ante propios y extraños el ejemplo más simpático de su unidad y de su valía en el concierto del elemento extranjero residente en el Uruguay [...]

Hay que poner punto final a las discrepancias de referencias, afirmando el sentido práctico y la buena voluntad de los baskos en obras de mérito, de honra y de provecho para toda la familia euskara. Esa sería la nota más simpática que podríamos dar los baskos.

Zer gertatu zen jakiteko oso baliagarriak egingo zaizkigu garaiko bertako edo gertuko komunikabideek gaiari buruz esandakoa. Orduan gertatutakoa *La Baskonia* aldizkariak¹⁸ azalduko digu honako artikulua honetan, gai honen inguruan bere ikuspegia azalduz:

Nuestra información del número anterior, referente a las pequeñas disidencias de los baskos con respecto a la forma de asociación, ha tenido la virtud de deslindar definitivamente las posiciones, uniformando criterios y predisponiendo el ánimo hacia una inteligente solución. Después de la asamblea del Centro Euzkaro celebrada el 20 de Enero último, una desorientación flotaba en el ambiente de la colonia, pues la constitución de ese Centro en la forma en que se efectuó dejaba un enorme vacío y entrañaba un exclusivismo injustificable.

«La Baskonia» ha dado; pues, un toque de clarín a tiempo, con una oportunidad singular y no podía ser de otro modo tratándose del órgano más viejo y arraigado de la prensa euskara en América.

Por lo pronto un grupo de baskos caracterizados ha resuelto convocar una asamblea, que se celebrará en el mes corriente para fundar el nuevo centro cuyo nombre, probablemente, será Zazpiyak-bat. Se han hecho ya los primeros trabajos a tal fin, y, dados los nombres de los convocantes, todo augura un término feliz de esos trabajos.

El centro Zazpiyak-bat surgirá a la vida auspiciado por prestigiosos elementos de la colectividad euskara de Montevideo con el loable propósito de envolver en un plausible acción baskongada a todo los hijos de Baskonia, cualquiera que sea su idiosincrasia religiosa o política. De su buena orientación, de la capacidad de sus dirigentes y de la buena voluntad de la familia baska dependerá la armonía y la fuerza de nuestra colectividad. Y cabe pensar en que habiendo esos elementos capaces, han de ser designados para tan delicado cometido.

Artikulu honetan ikusi dezakegu nola Centro Euskaron egindako azken bilkuraren ondoren (urtarrilaren 20koan, alegia), bertan hartutako erabakiak jende asko lekutik kanpo utzi zuen, eta beste euskal etxe bat sortzera bultzatu. *La Baskoniaren* hurrengo zenbakietan, euskal etxe horren inguruko aipamenak egiten jarraituko da, onespena azaltzeaz batera¹⁹. Denbora pasatu ahala antzeman dezakegu nola

18. "Los Baskos en el Uruguay; 'El centro Zazpiyak-bat'", *La Baskonia*, XIX. urtea, 661, 208 [1912ko otsailaren 10a].

19. "Los Baskos en el Uruguay; 'Zazpiyak-Bat'", *La Baskonia*, XIX. urtea, 664, 256 [1912ko otsailaren 10a].

*La Baskonia*²⁰ aldizkariko atal ezberdinetan ez duten oso aintzakotzat hartzen Euskaro euskal etxea eta nola desiratzen dauden euskal etxe berriak bere lehenengo pausoak eman ditzan²¹:

[...] los iniciadores de tan simpático movimiento, que son personas de criterio reposado, intención sana y apasionadamente enamorados de la unión de todos los baskos, creyeron conveniente caminar á paso lento pero seguro y obtener el mas brillante, fecundo y duradero de los éxitos en sus gestiones. La altura que estas han alcanzado á la hora presente hacen suponer que pronto veremos echar raíces en Montevideo una vigorosa organización euskalduna. [...]

[...] solo faltara que la Comisión Directiva esté compuesta por elementos inteligentes y de representación. Ampliaremos en otros números nuestras informaciones y mientras tanto, vaya para los baskos un formidable:

¡Aurrera, mutilak!

Oso deigarria da ikustea nola «Zazpiyak-bat» (batzuetan horrela deitua izan zen, ofiziala aukeratu eta Euskal Erria jarri zioten arte) euskal etxea errealitate bihurtzen den heinean, *La Baskonia* aldizkariak gero eta garrantzi handiagoa emango dion, Euskaroren kalterako. Adibide gisa, ondoko artikulua hauen arteko konparaketa, non informazio zehatzagoa ematen duten sortzen ari den euskal etxeari buruz²²:

Sociedad «Euskal Erria»

[...] La nueva Sociedad «está en marcha y nadie la detendrá», á pesar de que contra ella desde la prensa se han lanzado preconceptos y virulencias tabernarias indignas de ser tenidas en cuenta. La Comisión Directiva provisoria estudia actualmente el proyecto de estatutos de la nueva asociación para ser elevado ante la Asamblea General para verificarse en breve.

Horren ondoren, beste bi artikulutxo aurkitu ditugu nahiko deigarriak; batari eta besteari ematen dien garrantzia ezberdina delako:

El ambiente basko

Los actos recientemente verificados en Montevideo con motivo de la fundación del «Euskal-Erria» an dejado entre nosotros un auspicioso entusiasmo basko. En comercios, casa puntos eúskaros, se nota una marcadísima efervescencia, predominando en general de que esta joven sociedad va á adquirir, dentro del medio y con los hombres que la constituyen una trascendencia histórica para nuestra raza.

20. *La Baskoniaren* ideologia zein den jakiteko oso erabilgarria izango zaigu O. Alvarez Gilaren *Amerikako euskaldunak eta Abertzaletasuna (1900-1940)* lanetik hartutako erreferentzia hau: «... 1903 urtean, “laVasconia”k izena aldatzen du, “la Baskonia” bihurtuta, eta bere orrialdetan aranak euskararentzat proposaturiko ortografia onartuko du, “el más sublime de los ideales de amor a la patria” isladatzeko. Aldaketarekin batera, aldizkariaren erredakzioak ere atek zabalik dizkio abertzaleei; besteak beste, Antón Lepozabal ezizenarekin idatzi zuen Frantzisko Azpiri apaiz mendexetarra aipatu behar dugu, 1920an hil zen arte “La Baskonian” abertzaletasunaren sua pizturik mantendu zuelako...».

21. “Los Baskos en el Uruguay; ‘acividad baska- Buenos auspicios-’”, *La Baskonia*, XIX. urtea, 665, 256 [1912ko martxoaren 20a].

22. “Notas Montevidéanas; ‘Sociedad Euskal- Erria’; ‘Centro Euskaro Español’”, *La Baskonia*, XIX. urtea, 669, 320 [1912ko apirilaren 20a].

Cierto es que una excesiva susceptibilidad regionalista nos atribuye propósitos que no hemos tenido nunca é ideas con que jamás hemos familiarizado; pero eso mismo ha de desaparecer a´ medida que transcurra el tiempo y que nuestra acción adquiera la materialidad á que converge .

Entre tanto, por nuestra parte observaremos la conducta que hemos observado hasta hoy: dejar pasar el insulto y la mentira y propagar generosamente la fraternidad colectiva de los baskos, sea de este ó del otro lado del Pirineo.

La letra con sangre no entra. Y nosotros, de acuerdo con aquel precepto pedagógico que da a la bondad acción predominante sobre violencia en la formación de la cultura individual, procuraremos por la bondad de nuestra causa y por la fuerza del grito ó el ditirambo, convencer a los baskos de la significación humana de «Euskal-Erria».

Konparaketa bat egiten baldin badugu bi artikulu hauen artean, kontura gaitezke ezen *La Baskonia* aldizkariak sentsibilitate ezberdina azaltzen duela Centro Euskaro-Español eta Euskal Erria erakundeez hitz egiten duenean. Adibide gisa, ikusarazten digu komunitate euskaldunak erreferentziatzen Euskal Erria euskal etxea hartu behar duela. Arrarotzat har daiteke ere *La Baskonia* aldizkariak —zeinak Rio de La Platako eta Euskal Herriko gertakizunak esplikatzea duen helburu— ez argitzea Centro Euskaro bezalako erakunde batek zergatik erabakitzen duen bere izena aldatzea (Centro Euskaro Españolera, alegia).

3.2. Bi euskal etxe, bi ideologia

Baina zer gertatu zen Montevideon finkatuta zeuden euskaldunen artean? Zergatik euskal etxerik ez izatetik bat-batean bi izatera pasatu ziren? Zein izan ziren horien bultzatzaileak? Hauek izan daitezke edozein pertsonak egin ditzakeen galderak hango gertakizunak aztertzen hasten den uanean.

Horretarako errazena erreferentziatzen alde bakoitzeko pertsona esanguratsuenak hartzea izango litzateke; alde batetik, Enrique de Bilbao Euskaro Españolen ideologiaren eredu gisa, eta beste alde batetik, Euskal Erria erakundea ulertu ahal izateko Arnaldo Pedro Parrabere eta Hermenegildo Aramendi aztertu beharko genituzke.

Enrique de Bilbaorekin hasten bagara, lehenik eta behin puntu batzuk argi utzi behar direla uste dut. Besteak beste, Enrique de Bilbao Euskal Herrian jaio zela azpimarratu beharra dago (bere burua *El paladin de la Vasconia española y liberal* bezala kalifikatzen zuen)²³. Bera Montevideora iristean bi errealitateak ezagutzen zituen, bai Uruguaikoa baita Euskal Herrikoa ere. Euskal etxeren artean piztutako gatazka ulertu ahal izateko, bere idatziak oso baliagarriak egingo zaizkigu. Lehen aipatu dudak bezala,²⁴ bera Euskaroko bazkidea izan arren, Euskal Erria euskal etxearen lehen bileretan egon zen eta ez entzule soil bezala, baizik eta aldaketa batzuk proposatu zituen, baita onartu ere (ez guztiak baina bai batzuk). Hala ere, esan beharra dago Bilbaori ez ziotela jaramon handirik egin, zuen ideologiaren ondorioz.

23. Enrique de Bilbaok Centro Euskaro Españolen emandako *La Euskaria Española* hitzaldia, 1912ko maiatzaren 15eko gaua, Montevideo.

24. Ikus 7. orrialdeko Euskal Erriako sorrera-akta.

Enrique de Bilbao ez zen geldirik gelditu bere ustetan Euskal Erria euskal etxean gertatzen ari zenaren aurrean, horregatik 1912ko maiatzaren 15ean *La Euskaría Española* deituriko hitzaldia ematea erabaki zuen non pentsamendu ezberdinak plazaratu zituen. Haren hitzaldian zenbait puntu ikus ditzakegu, baina hitz hauekin hasi zen Euskal Erria euskal etxea sortu zuen jendea zer den azaltzen²⁵:

Hace de esto unos meses que entre un grupo de vascos, entre los que dominaba el elemento navarro, esos *navarricos* de tan rápido *pensar, decir y hacer*, surgió la feliz idea de formar un Centro vasco, al igual que lo hacían los hijos de las demás regiones de españolas, catalanes, gallegos, asturianos, etc. ¿Y porque no? ¿Es que acaso los vascos somos por temperamento, por hábito o por abandono cultural; acaso también por idiosincrasia, refractarios al espíritu de «colectivismo» y de sociedad, en fin, que es hoy el sello especial que distingue las culturas de los modernos ambientes? Entre vascos mismos tengo oído formula esta errónea apreciación, al ocuparse del fracaso de todas nuestras intenciones de asociación.

Zati honetatik atera dezakegun ideietako bat hau da: euskaldun batzuk beste batzuekin batzeko nahiarekin, euskal batasuna haustearren errudunak direla. Baina zer euskal batasunaz ari da Bilbao? Badakigu Bilbaok defendatutako ideia Euskaria-Español eta liberal bat dela, zer ikusi ote du orduan, beste euskal etxea sortu nahi duten pertsonen ideologian? Eta azkenik, zer dira euskaldunak harrentzat?²⁶

Los vascos somos, acaso y sin acaso, la raza en la que el espíritu de asociación está más arraigado y, precisamente, gracias á él, ha mantenido y mantiene Euskaría á través de los siglos su perfecta homogeneidad étnica; y por el espíritu de sociabilidad y fraternidad que le hace adaptabilísima á todos los medios, es no solo querido y estimado el vasco en todas partes donde su espíritu audaz y valiente lo lleva, sino que, hay que decirlo sin modestia, es hasta preferido de entre todos sus connacionales; porque á los hábitos de sobriedad y trabajo, comunes á toda la raza española, sobrepuja á las demás regiones en ese espíritu de paz y concordia [...]

Hori izango litzake, Bilbaoren ustez, euskalduna izatea. Haren hitzaldia irakurtzen jarraitzen badugu, pixkanaka ikusiko dugu nola gerturatzen den *Centro Euskarro* sortu zutenean azaldutako berezitasunetara. Hona hemen, euskal etxe hori sortu zeneko Bilbaoren iritzia:

Pero ¡ay! Que con la formación del «Centro Euskarro» ha ocurrido algo anormal, algo lamentable, que ha dejado en descubierto la vulgaridad de algunos espíritus, la poquedad de algunas voluntades, exigentes y hasta desconfiadas, las que á los *primeros cobres* sacados de sus fatriqueras, hubieran querido ver surgir, como por arte de encantamiento, ¡*un esplendente palacio euskarro!* Con fiestas y *soirées* de tal magnificencia que hubieran dejado tamañitas á las famosas que diz daba el gran Sardanápalo!

Beraz, hemen azaltzen hasten zaigu nola Euskarro sortu bezain laster, euskal etxeak egin beharreko bidean bi ikuspegi ezberdin agertu ziren. Hitzaldi horren

25. Bilbao, *ibidem*, 4. or.

26. Bilbao, *ibidem*, 5. or.

lehen atal hau bukatutzat emateko, bertatik joandakoak deskalifikatu eta berak parte hartzen duen euskal etxea goraiatu egingo du.

[...] y el gesto gallardo de lo que nunca muere, de lo que ya hoy es y SERÁ; de lo que ya VIVE y VIVIRÁ, pese á quien pese. ¡El Centro Euskaro Español!!

Beraz, Bilbaoren hitzen arabera, euskaldun onak ez ziren batzuek beste euskal etxe bat sortzea erabaki zuten. Hori esatearen zergatia, Euskal Erriaren batzarran ikusitakoarekin justifikatuko du²⁷:

Tanto de lo observado en la Asamblea de formación del nuevo Centro, que se llamará «Euskalerría», como en la conferencia que diera en la «Sociedad Francesa» el señor Basaldúa, pudo colegirse que del *fuego sagrado* en ambos actos tan despilfarrado en pro de la *Patria Chica*, no se dedicó ni una leve chispa, ni una mortecina ascua, ni un poco de rescoldo cálido, para la Gran Patria! para la Gran Madre España, Madre Augusta de Pueblos!! (Aplausos).

¿Fue un olvido? ¡Quién lo sabe! Pero hace reflexionar honda y tristemente, acaecido en la conferencia del señor Basaldúa, que cuando el doctor Turena, caballero oriental, pusiera como brillante epílogo y coronación á su encomiástica apología de la raza vasca, el hecho de que «*¡vascos fueron —dijo— los caudillos que guiaron nuestras legiones liberadoras de la dominación española!*», la Mesa y el auditorio en pleno (menos yo y algunos de los presentes), se levantaron á aplaudir frenéticamente, delirantemente, ovacionando al elocuente orador uruguayo!

¡Bien estuvo él —pensamos nosotros— en agradecer aquel servicio á su patria, por parte de los TRAIADORES á la causa de España! pero mal! ¡muy mal! Estuvo aquella Mesa presidencial del acto y la asamblea toda, en aplaudir la evocación de hecho, que á ser ciertos, ningún honor arrojan sobre los vascos y que nosotros, como vascos españoles, condenamos con la severidad con que es condenable la traición de lesa Patria! (Frenéticos aplausos).

Horrekin, gure kontalariak (Enrique de Bilbaok) ikusi zuen bertan ez zutela inongo aipamenik egin Espainiari buruz, eta Euskal Erria euskal etxean gauzatutako ekintza edo jokaera, antiespainartzat jo zuen. Horri aurre egiteko eta bera partaide den euskal etxeari identitatea indartzeko asmoz, Centro Euskaro, Centro Euskaro Español izatera pasatuko da²⁸:

Aquel acto —*tácitamente* antiespañol— nos sugirió la idea, como reparación á la gran Patria olvidada hoy, acaso, porque es debil y desgraciada, de añadir á la Enseña de nuestra Sociedad, la enaltecedora y honrosa siempre, palabra de «Español»; y desde entonces, como se hizo anunciar en la prensa local, llámase nuestra Sociedad, *Centro Euscaro Español*, y como tal y como españoles, hemos creído *patentizar* nuestro acendrado españolismo, (que en nada amengua el amor á la Eusería) [...]

Gainera ez da horretan soilik geldituko, zeren eta bertan ikusi zuen ideologia (bere ustetan gutxienez) abertzaletasun aranistatzat hartu baitzuen. Nahiz eta hain argi ez esan, hori ondoriozta dezakegu, honako hitz hauetan²⁹:

27. Bilbao, *ibidem*, 9. or.

28. Bilbao, *ibidem*, 10. or.

29. Bilbao, *ibidem*, 11. or.

Así somos y así queremos ser *vascos*. Respetuosos con los amores tradicionales de la raza: Dios y Patria: pero no sospechosos ante el mundo culto, de *llevar el fraile dentro*, ni de amar á la patria chica con la odiosa y fanática exclusión de la Patria Grande!... [...] y conste que al aludir á la *Sociedad Euskalerrria* todavía en periodo de gestación, no hacemos otra cosa que defendernos, sin que detrás de nuestra replica, quede el menor sedimento de malquerencia, que tan mal sienta entre hermanos; porque nuestro programa es obra de paz, de unión y de hacer cultura!

Hitzaldi berdinaren bi memento ezberdinetan bi ideia azaltzen ditu; sortuko den euskal etxetik babestu egin behar direla, baina era berean beraiek bakea eta batasuna lortu nahi dutela. Bere hitzaldia aurrera doan heinean, ezberdindu egingo ditu Hego Euskal Herriko historia eta Espainiakoa³⁰:

Un noble periodico, de vitalidad á prueba de todos los sacrificios y de todas las tenacidades, glorioso *abanderado* de las legiones españolas que pueblan el Uruguay, *El Diario Español*, ha dicho, acaso un encomiable celo de información, que yo iba, en este conferencia, á hacer la «historia de las cuatro provincias vascongadas». Ni ello sería posible dentro del marco de este acto, ni para mi empresa hacedera encararme con la historia más antigua y gloriosa del pueblo más ilustre y prócer de la tierra.

Azkenik Euskal Erriako ekitaldian parte hartutako pertsona baten aurka egiten du. Alegia, Florencio Basaldúa ideologia abertzalearen defendatzaile moduan jartzen baitu, baina horrelakoa ote zen Basalduaren ideologia?³¹

Y ahora terminaré glosando al señor Basaldúa, cuando gentilmente rogaba á sus oyentes para que se pusieran de pie para saludar á Euskería, ¡á Euskería nada más! Pero yo, añadiré en mi ruego, algo que nos debe ser muy venerado: la Patria Española!...

¡Vascongados! Señoras y señoritas que incorporáis á través de la Historia de *Baskonia*, vuestras incomparables virtudes á la obra grandiosa de nuestra raza inmortal! ¡yo os lo ruego! ¡Levantaos! ¡de pie un momento, para que asociéis al mío vuestro grito, salido del corazón, puesto en labios, para saludar á las dos patrias!

¡Viva Euskeria!!...

¡Viva España!!

Handik hilabete eta bi astera, beste konferentzia bat emateko gonbidatua izan zen, *La Mujer Vascongada* izenpean³². Bertan ezberdintasun batzuk aurki ditza-kegu, adibidez Bilbao ohorezko presidente izendatua izan zela kontura gaitzke, baita bere hitzaldi horretara, besteak beste, Medinako markesak —Espainiako enbaxadoreak zirenak— eta Espainiako kontsula joan zirela ere (hots, Espainiako ordezkari diplomatikoak). Hitzaldi horretan goratu egin zituen euskal emakumea-ren portaerak, eta horretaz baliatuta Espainiako emakumeen eredu jarri zituen.

Hau guztia ikusita esan dezakegu Bilbaok hauxe defendatzen zuela; jendeak bi aberri izan ditzakeela, bata aberri handia (kasu honetan Espainia) eta bestea aberri txikia (kasu honetan Hego Euskal Herriko lau lurralde historikoak). Haren ideologiaren barruan ikus dezakegu euskal zaletasun kulturala espainoltasunaren

30. Bilbao, *ibidem*, 12. or.

31. Bilbao, *ibidem*, 13. or.

32. Enrique de Bilbaok Centro Euskaro Españolen emandako *La Mujer Vascongada* hitzaldia, 1912ko ekainaren 29ko gaua, Montevideo.

aurka jaiο zelako ideia, beraz, tesi aranistak ikusten zituen Euskal Erria euskal etxearen inguruan.

Euskal Erria euskal etxearen ideologia aztertu ahal izateko, bertako zenbait pertsona aztertzea izango litzateke egokiena, ezin baitaiteke esan bertan biltzen ziren pertsonak sentsibilitate berdina zutenik. Hermenegildo Aramendiren ideologia zer-nolakoa zen ikusteko, ez da oso urrun joan behar jakiteko bera EAJkoa zela. Baina zer ziren harentzat euskaldunak? *La Baskonia*ko artikulua honetan hau idazten du euskaraz³³:

Al señor Evaristo B. Urrutia, como una prueba de simpatía por sus sentimientos de verdadero euskarismo le dedico el recuerdo adjunto.

Askok uste dute Euskal errian jayotako ume guziak ukatzen duen semeak ez du merezi aren maitetasunik: ukatzen duen semeak ez du merezi aren maitetasunik [*sic*]: bere anayari gorrotoa dionak, ez du errukimenturik merezi: ura ez da ezagutu bear anaitzat, ura bota ezin bearda echetik eta senide guzien artetik: gaitzegiteko bestelako serbitzen ez duen alimalia bezala: eritasuna gorputzetik botatzen den bezala: ura euskal erria sortu izan arren «ez da euskalduna».

Ezin liteke gauza onik iehoiñ, chikitanik lotsa galduta, biotza usteldua daukaten jende-etatik: ¿zer egin lezake ama ukatzen duen semeak? ¿Zertako balio du anaya ezagutu nai ez duen ernegatu gizacharrak? ¿Zer izen merezi du amari amorioaren orde z gaiztakeria ematen dion semeak, bere eriotza billatu naiean? Alako madarikatua «ez da euskalduna».

Ama euskararen seme guziak dira prestuak eta leyalak; edozein lekutan jayoak izan arren, elkar ezagutzen dutenak, anayak anaya ukatzen ez dutenak, eta guzien ama euskal-erria iotzetik maitatzen dutenak, baño oyen etsayak, lur artan sortuak izan arren «ez dira euskaldunak» ezer ez dakiten ergel arraroak, bere burua jakintsu egin eta arkume larrioz jasitzen diran otsoak, besteren atzean izkutatuta ama euskara ill-nai dutenak «ez dira euskaldunak».

«Euskaldunak dira» Urruñia-ko «Arturo Campion» bezala beti, beti « euskal-erriaren » alde lan egiten dutenak.

«Euskaldunak dira» amak siaskan erakutsitako sinistasunak eta eginberrak, biotzean gordetzen dituztenak, aralar-mendiko arkaitz artetik ateratzen dan ur cristal idurikoaren garbitasunarekin.

«Euskaldunak dira» Buenos Airesko «Euskal-echeko» apaiz jaun soloeta, Azkue eta beste asko, guri gure Aita-Amak erakutsi zigutena besteren ume askotan erakusten diotenak.

Eta «Euskaldunak dira» gure amacho euskara maitea biotzetik maitatzen dutenak, eta kariños ingurututa indar-berria eta osasuna ematen diotenak.

Orra bada. ¿ zeindiran euskaldunak?

H. Aramendi

Mansavillagra, febrero 1912

33. "Oroitza; 'nortzuk dira euskaldunak'", *La Baskonia*; XIX. urtea, 664, 256 [1912ko martxoaren 10a].

gorago azaltzen den bezala, Aramendiren idatzi hau Evaristo Bozas Urrutiari zuzenduta egon arren, beste batzuei zuzenduta dagoela kontura gaitzke, Euskaroko bazkideei alegia. Hauei kritikatu eta aurpegiratu egiten diete, nahiz eta Euskal Herrian jaio ez diren, beren anaia gorroto eta aintzakotzat hartzen ez dutelako (Iparraldeko euskaldunak). Hari berari jarraituz, euskaldunak zeintzuk diren azaltzen du; Euskal Herriaren alde lan egiten dutenak; Arturo Campión adibidez, edo euskaldunak dira ere ama euskara bihotzetik maitatzen dutenak.

Baina ez litzateke gaizki etorriko jakitea zergatik jarri zen *La Baskonia* aldizkaria hain goiz sortzen ari zen euskal etxe berriaren alde; alde batetik, gogoratu beharra daukagu *La Baskonia* aldizkari abertzalea zela, eta bestetik, onuragarria izango litzake argitzea nor zen bertan lan egiten zuen kazetaria³⁴:

Digno cooperador de esos trabajos en pro de la fraternidad euskalduna, ha sido nuestro corresponsal en Montevideo, señor Bozas Urrutia, y no(s) hacemos extensivo este honor á esta modesta hoja, porque tenemos la convicción de haber cumplido con un deber y á quien eso hace la tributación de plácemes [sic] y elogios.

Hori horrela izanda, esan dezakegu *La Baskonia* aldizkariak (bertako kazetaria zen Bozas Urrutiaren bidez) partaidetza zuzena izango zuela euskal etxe berri horren sorreran. Irakurtzen jarraitzen badugu, horrekin zer lortu nahi zuten aurkituko dugu³⁵:

[...] la mayor gloria que á «La Baskonia» puede caberle en estos momentos, de regocijo, esta en el grandioso espectáculo que nuestros hermanos de Montevideo ofrecen, y que es el mas edificante ejemplo de amor hacia la querida y lejana patria que se ha dado en estos últimos tiempos.

Al acometer esos exceclntes [sic] compatriota esta obra fraternal, su criterio amplio se amoldó alo que era de justicia y partícipes de los beneficios de su magna empresa, serán todos los bascos, sin limitación alguna, ya que tan euskaldunas son los que nacieron en Lapurdi, Benabarre y Suberoa, como quienes vieron la luz primera en Bizcaya, Guipuzkoa, Araba y Naparra.

Entraña para la causa baska tal importancia ese proceder, que nosotros no podemos por menos de hacer pública nuestra admiración hacia quienes desviándose de rutinas y convencionalismos, nacidos al calor del más condenable equívico [sic], brindan amor á hermanos alejados de nuestro regazo, no por voluntad propia, sino por la insidia de quienes necesitaban la división para el triunfo.

La creación de «Zazpiyak bat» en Montevideo, viene á marcar un nuevo rumbo á los bascos y su provechosa y benéfica influencia vendrá á modificar criterios y contribuir á la unión desde hace tanto tiempo deseada.

La primera reunión pública preparatoria se verificará hoy por la noche y en ella quedaran nombradas las personas que formaran la Comisión Directiva provisional.

Mañana, y como digno epílogo de esta primera jornada [sic] se verificará en Montevideo un acto cuya trascendencia es inútil encarecer.

34. "Los Baskos en Montevideo; 'Acto de trastendencia'", *La Baskonia*, XIX. urtea, 666, 282-283 [1912ko martxoaren 20a].

35. "Los Baskos en Montevideo; 'Acto de trastendencia'", *La Baskonia*, XIX. urtea, 666, 282-283 [1912ko martxoaren 20a].

El viejo campeón y luchador incansable de nuestra raza, el ilustrado filólogo señor Florencio Basaldua, cuyo mejor elogio queda hecho con decir que es el autor de la «Raza Roja», dará una interesante conferencia que será un hermoso canto á nuestra patria y un poderoso alimento para proseguir la lucha.

Será presentado el señor Basaldúa por nuestro ilustrado corresponsal señor Bozas Urrutia. «La Baskonia» que enviara una representación especial a Montevideo, ofrecerá a sus lectores para el numero próximo una interesante y detallada información de tan hermoso é interesante acto.

La Baskoniak, Euskal Herriko zazpi lurraldeak aintzakotzat hartuko dituen euskal etxearen sorrera txalotzen du. Bi hitzetan esanda, bere ideologiarekin bat datorren euskal etxea. Uste baitute euskal etxe horren sorrerarekin, euskaldun guztien batasuna lortuko dutela.

Argi gelditu da zer-nolakoa izan zen euskal etxe berriaren sorrera, baina nola-koak ziren euskal etxe hori osatzen zutenak? Abertzaleak zirela esan dezakegu?

Ondoriorren bat atera ahal izateko, hoberena da berau osatzen zuten pertsonen buruzko informazioa izatea, eta pertsonarik esanguratsuena Arnaldo Pedro Parrabére izango litzake³⁶.

Arnaldo Pedro Parrabére, Pabeko hirian jaio zen, nahiz eta haren gurasoak euskal herritarrik izan. Oso gazte, 1889an alegia, Uruguaira emigratu eta Montevideon ezartzea erabaki zuen. Dirua oso azkar egitea lortu zuen (eredu bezala sortutako Oyama likore-enpresa aipa daiteke) eta horrek Uruguaiako bizitza publikoan parte hartzea erraztu zion, oso pertsona ezaguna bilakatu.

Betidanik giza ikasketetan oso abila zela azpimarratu dute haren biografoek, horrek Uruguaiako bizitza politikoa bide bat irekitzea erraztu ziolarik (horrek, esaterako, Turismoko Batzorde Nazionalako kide eta ordezkaria izateko bidea erraztu zion).

Inoiz ez zuen ahaztu zein izan zen bere sorterrria, horrexegatik, bere burua bai euskalduna eta bai frantsesa jotzen zuen (horrek, gainera, ez zion bere baitan inolako aurkakotasunik sorrarazten). Bere euskal identitatearen ikuspegi nagusiak honela azal ditzakegu: Euskal Erria euskal etxearen sortzaileetarikoa bat izan zen (Aramendi, B. Urrutia eta beste askorekin batera), are gehiago, euskal etxe horren zutabe nagusizat hartu beharko genuke. Begi onez ikusten zuen, bai Ipar Euskal Herriko bai Hego Euskal Herriko biztanleek bertan parte hartzea, inongo diskriminaziorik egin gabe. Baina haren nahiak ez ziren bertan bakarrik gelditu, eta Euskal Herriko kolektibitatearen alde zenbait lan egiten jarraitu zuen.

Besteak beste, Euskal Erria euskal etxearen aldizkaria sortzea proposatu zuen, zeinetan zuzendari-lana hartu zuen (aldizkariak euskal etxearen izen bera eramango zuen). Horrez gain, lurrak erosi zituen euskal herritarrentzat, frontoiak, txokoak eta neskenzako ikastetxe bat eraikitzeko; non euskal immigranteen alabei euskal hizkuntza (baita kasu honetan frantsesa ere), historia, geografia, kultura eta tradizioak irakatsiko zizkieten.

36. *Los Vascos en América. Chile, Argentina Uruguay, Cathalonia* Argitaletxea, Santiago de Chile, 1937, 703-704.

Aurrean ditugun datuokin, edonork pentsa dezake Parrabére euskal abertzalea zela, Hermenegildo Aramendiren antzera, eta bien artean Euskal Erria euskal etxea egitea erabaki zutela, Euskaro euskal etxeari aurre egiteko. Baina esan al dezakegu Parrabére abertzalea zela?

Hori argitzeko oso lagungarria izan daiteke Euskal Erriak sortutako nesken ikastetxearen estatutuak aztertzea (gogoratu Parrabére izan zela haren bultzatzailerik sutsuenetarikoa)³⁷:

Fin de este instituto

[...] La educación intelectual se da de acuerdo con el programa de Enseñanzas Primaria de Estado, abarcando además, Historia y Geografía baskas, idioma basko y francés así como toda clase de labores, siguiendo los métodos de la pedagogía moderna.

La educación moral con la influencia del buen ejemplo; el cariño recíproco entre las profesoras y alumnas; inculcándoles amor, respeto y obediencia a los padres, y con la práctica de las virtudes cristianas.

Ikus dezakegunez, euskal kultura sustatzeko zenbait neurri hartu zituzten. Baina ezin dezakegu esan horretan bakarrik gelditu zirenik, beste neurri deigarri bat hartu baitzuten³⁸:

Disposiciones generales:

[...] las enseñanzas del basko y francés, así como las lecciones de bordados y encajes están comprendidas en la pensión; no obstante, si alguna señorita no matriculada deseara aprender estas clases de adorno abonara por cada una de ellas \$ 5 mensuales.

Hau guztia ikusi ondoren, erreza dateke erantzuna. Baina horri gehitu beharko genioke 1914-18 urteen artean (Lehen Mundu Gerrak iraun zuen garaian) kolektibitate frantsesarekin harremanak estutu izana, bere egunkarian frantziarren alde artikulatuak idatziz³⁹:

Por qué simpatizamos con Francia en los momentos actuales:

Nuestras simpatías están con Francia, en la actual contienda, porque ha sido provocada a esta maldita guerra y ella es la que representa en estos momentos el derecho y la justicia pisoteados por el soberbio provocador. Esto por una parte y después, porque nuestros hermanos de raza, luchan en las filas del valiente ejército francés.

Somos hermanos y como tales sentimos las desgracias que sufren los eúskaros que actualmente se hallan en las líneas avanzadas del ya citado ejército. Sus derrotas nos entristecen y con sus victorias nos sentimos felices.

37. *Euskal Erria instituto de enseñanza dirigido por las religiosas "Hijas De San José"*ren aktak, Montevideo, 1924.

38. *Euskal Erria instituto de enseñanza dirigido por las religiosas "Hijas De San José"*ren aktak, Montevideo, 1926.

39. "Por que simpatizamos con Francia en los momentos actuales", *Euskal Erria*, III. urtea, **134**, 124 [1914ko urriaren 11].

Creemos que no será comprometida la neutralidad española, en esta contienda; pero si tal sucediera quisiéramos estar juntos a nuestros hermanos de Lapurdi, Benabarre y Suberoa, para decirles: *Vuestros enemigos son nuestros enemigos; ¡hermanos, adelante!*

Hau, gaur egun, nahiko arraroa irudituko litzaziguke, zeren eta, alde batetik, euskal kultura sustatzeko ekimenak egiten bazituen ere, beste alde batetik, frantziarrak anaiatzat hartzen baitzituen⁴⁰. Baina oraindik arraragoa egingo zaigu orrialde berean idatzitako hurrengo artikulua, non Argentinako EAJk egindako deialdi bati hotsa eman eta lagundu ere egin zioten⁴¹:

Distinguido compatriota:

Cumplo con el deber de comunicar a Vd. Que, esta Junta de Gobierno de la sociedad Euzko-Gastedija (Juventud Vasca), en sesión celebrada con fecha del 27 corriente, ha acordado invitar a todas las sociedades de vascos ya de la Argentina como de Montevideo y Chile, a una reunión de sus representantes para estudiar la forma más conveniente de reunir fondos con que aliviar en algo la triste situación en que quedan las familias de los vascos de Lapurdi y Zuberoa muertos en la actual conflagración europea. [...]

Unamos nuestras oraciones, para que Dios, de quien son todos los destinos, acoja en su seno las almas de sus fervientes héroes que han muerto con la reliquia sagrada en sus pechos, como acostumbra los buenos descendientes hijos de Euzkadi. [...]

Cuando se trata de una nobleza pura, como está reconocida la de los vascos, los mayores rencores, las más lejanas distancias en el pensar y todas las diferencias individuales y sociales, se desvanecen por completo ante el sentimiento abrumador que la desgracia trae a nuestros corazones por todo aquello que fatídicamente concierne a nuestra sangre y mejor dicho aún a nuestra raza.

Hemendik hauxe atera dezakegu: Arnaldo Pedro Parrabére ez zen abertzalea, baina esan beharra dago euskal kultura edo euskaltzaletasuna sendo defendatu egiten zuela. Horrek, ordea, ez dio oztoporik sortuko Hermenegildo Aramendi abertzalearekin (EAJkoa) euskal etxe bat sortzeko.

4. Ondorioak

Orain, datu hauek guztiak mahi gainean jartzen baditugu, bertan zer gertatu zen azaltzeko moduan aurkituko gara. Hori bai, ez dugu inoiz ahaztu behar, garai horretako jendearen jarrerak eta pentsamoldeak ezin ditugula gaur egungo parametroekin neurtu. Zera esan nahi dut honekin, dena ez zela zuria edo beltza izan garai horretan, gutxienez Euskal Erriako partaideen artean.

Argi gelditu da, Montevideon oso goizetik hasi zirela euskal migrazioa jasotzen. Euskaldunek era berean beren hizkuntza eta kultura gorde ahal izateko pauso bat harago joatea erabaki eta tabernetatik beren txokoak edo batzeko lekuak sortzeari ekin zioten. Lehenengo olatu horretan bi sortu ziren, zeintzuek Uruguain izandako

40. Idatzitako beste liburu eta artikuluko batzuk: *A mi patria; Ils ne passeront pas; En Avant, Le Jour de glorie est arrive* edo *Asuntos sobre la Gran Guerra Europea*, zeinetan frantziarren aldeko hitzak idatzi zituen Lehen Mundu Gerraren garaian.

41. "Distinguido Compatriota", *Euskal Erria*, III. urtea, 134, 125 [1914ko urriaren 11].

krisi ekonomikoaren ondorioz, biziraupen oso laburra izan zuten: *Laurak bat* izenekoak 1876-98 urteen artean iraun zuena, eta *Centro Vascongado* 1896an sortua, baina handik gutxira desagertuko zena.

Gauzak horrela, 1911. urtean euskaldun batzuek beren aitzindariak eginikoa berreskuratuz euskal etxe bat sortzea erabaki zuten, Centro Euskaro deiturikoa. Baina estatutuak egiteko unean ez ziren akordio batera iritsi: euskaldunak zeintzuk diren definitu behar zuten unean desadostasuna iritsiko zen. Batzuk Hegoaldeko euskal herritarrez soilik osatutako euskal etxe baten alde agertu ziren, beste batzuek, ordea, euskal etxe horretan euskal herritar guztiak bateratuko zituen gune bat sortu nahi zuten. Ondorioa da azkeneko horiek beren kabuz beste euskal etxe bat sortzeko erabakia hartu zutela.

Enrique de Bilbao, Euskal Erria euskal etxe berriaren lehenengo batzarrean egon ondoren, ideia bat atera zuen handik: euskal etxe berria EAJren ideologiatik sortutako euskal etxe bat izango zela. Hori ikusita, Euskal Erria euskal etxea sortu zutenen ideologia nolakoa zen azaltzea beharrezkoa izango litzateke. Horrela, Bilbao egindako interpretazioa kritikatu ahal izango dugu, onerako zein txarrerako ere.

Gure ustez, ezin dezakegu esan Euskal Erria euskal etxean sortu zen ideologia abertzaletasun aranista zenik, bertan aurki ditzakegun bazkideek ideologia oso heterogeneoa baitzuten. Hori erakutsi nahian, adibide gisa Parrabere, Basaldua eta Aramendiren ideologiaren azalpen txiki bat egitea ondo etorriko litzateke.

Parrabere, euskal herritarra eta frantsesa sentitzen zen. Basaldua, ordea, euskaldun abertzale sutsua izan arren, Aranaren tesien aurka azalduko zen, ez baitzen abertzaletasun arrazial baten ideiekin bat etorriko. Azkenik, Hermenegildo Aramendi abertzalea aurkituko dugu. Ondorioz, hain ezberdinak diren pertsonak batzeaz arduratuko dena komunean zeukatena gauza bakarra izango da: euskal kultura.

Beraz, Enrique de Bilbao hartutako jarrerak (Euskal Erriakoak abertzaletzat hartzea eta, ondorioz, horien aurkako kanpaina egitea) ondorio zuzen bat ekarri zuen, Euskal Erria euskal etxeko kideek beren euskaltasun kulturala areagotzea, bi euskal etxeen arteko ezberdintasunak areagotuz. Hala ere, bi euskal etxeen arteko harremanak, denboraren poderioz hobetuz joan ziren. Euskarokoak Iparraldekoak beren euskal etxean sartzearen aldeko keinu txikiak egiten hasi ziren. Horren erakusgarri Euskaro Españolen aktetan azaltzen dena har dezakegu⁴²:

En Montevideo a tres de Enero de mil novecientos catorce, reunido el Centro Eúscaro Español en asamblea general ordinaria en cumplimiento de lo dispuesto por el inciso 3º del art. 46 del Reglamento, en el local del Orfeón Español, calle Río Negro, nº 1492.

42. Abertzaletasunaren Agiritegia (Artea, Bizkaia), Centro Euskaro Español fondoa, Libro de Actas del Centro Euskaro-Español: *Acta numero 5* escrita el tres de enero de mil novecientos catorce. Bi euskal etxe hauek horrela jarraitu zuten harik eta Manuel Aranaga (Euskaro Españolekoa) eta Nikolas Inciarte (Euskal Errikoa) lehendakariak beren euskal etxeen arteko erlazioak hobetzeko asmoarekin iritsi arte, 1915eko abenduan.

[...] Asunto 3º- Se acordó admitir con el nombre de socios de protección a todos los españoles no vascos y a todos los vascos franceses que abonen la misma cuota que los socios activos, pero no tendrán voz ni voto en ningún asunto que se relacione con el régimen del centro. [...]

Amaitzeko azken ideia bat esan beharrekoa iruditzen zait. Uruguaiako euskal etxeetan gertatutakoa ez da kasu bakarra izan, horrelakoak beste euskal etxe batzuetan ere gertatu zirela azpimarratu beharra dago. Adibide gisa, Mexikon *Centro Vasco* eta *Centro Vasco Español*ekin oso antzeko kasua dugu (Arcelus, 2001). Baina ezin gaitzke kasu horretan bakarrik gelditu, berdin gertatu baita Rosarioko (Zazpirak-bat) (Caula eta Garcia, 2002) eta Buenos Aireseko (Laurak Bat) (Ezkerro, 2003) euskal etxeetan. Hau guztia ikusita, Uruguain gertatutako fenomenoak, euskal etxe gehienek sorreran gertatu dela azpimarratu beharra dago. Ondorioz, gehienek komunean zerbait izan zutela esan dezakegu; guztiak galdera hau egin beharrean aurkitu ziren: zeintzuk gara euskaldunak?

Bibliografia

- Alvarez Gila, O. (1996): "Vascos y Vascongados: luchas ideológicas entre carlistas y nacionalistas en los centros Vascos del Río de La Plata", *Emigraciones y Redes sociales de los Vascos en America*, EHU, Gasteiz.
- Arcelus Iroz, P. (2001): *Presencia de Navarra en México, 1870-1950*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Arin Ayphassorho, J. (2000): *El legado de los inmigrantes*, Euskaldunak Munduan, I. liburukia, Gasteiz, 85-185.
- Azcona Pastor, J. M. (1992): *Los paraísos posibles*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Azcona Pastor, J. M.; Cagio, P. eta Goró, J. (1992): *Historia General de la Emigración Española a Iberoamerica*, Historia 16, Madril.
- Azcona Pastor, J. M.; Muru Ronda, F. eta García-Albi, I. (1994): *Historia de la emigración vasca en Uruguay en el siglo XX*, Archivo Nacional Montevideo.
- Caula, E. eta Garcia, A. (2002): *Historia del centro vasco Zazpirak-bat de Rosario*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Coolighan, M. L. eta Arteaga J. J. (1992): *Historia del Uruguay desde los orígenes hasta nuestros días*, Editores Barreiro y Ramos, Montevideo-Uruguai.
- De Pablo, S.; Mees, L. eta Rodríguez Ranz, J. A. (2001): *El péndulo patriótico*, Editorial Critica Contrastes, Madril, 179.
- Ezkerro, M. (2003): *Historia del Laurak Bat de Buenos Aires*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Irigoyen Artetxe, A. (1999): *Laurak bat de Montevideo. Primera Euskal Etxea del mundo, 1876-1898*, Gasteiz.
- , (2001): "Batallones Euskaldunes, Nueva Troya. Montevideo (1843-1851)", *Euskonews & Media*, **136**, (2001/9/21-28).
- , (2003a): "Hermenegildo Aramendi un precursor del nacionalismo vasco en el Uruguay", *Euskonews*, **203**, (2003/03/14-21).
- , (2003b): *Centro Euskaro de Montevideo o la dialéctica del ser*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Luzuriaga, J. C. eta Alvarez Gila, O. (2001): "Asociacionismo vasco en el Uruguay; del mutualismo al nacionalismo (1850-1940)", *Estudios Ibero- Americanos*, Porto Alegre, pontificia Universidade Católica do rio Brandedo Sul, XXXVII. lib., **1**, 256-268.

Mörner, M. (1996): "Inserción del fenómeno Vasco en la emigración Europea a América", *Emigraciones y Redes sociales de los Vascos en America*, EHU, Gasteiz.

Rodríguez Villamil, M. (1991): *Los bayoneses en Argentina*, Segundo Seminario sobre Iglesia, evangelización e inmigración en la Argentina, 1991ko maiatza.

